

ARRASATEKO KULTURATEKO ARETOAK
ERABILTZEKO ARAUAK
TGB 2007-02-12 bilkuran onartua

1. ESKAERAK

- 1.1 BAZeko bulegotan aurkeztu behar dira horretarako dagoen inprimakian
- 1.2 Ekipamendu aldetik beharrak eskaeran azaldu beharko dira.
- 1.3 Gutxienez hamabost egun aurretik, bileretarako izan ezik, bezperan ere eska daitekeela.

2. ARAUAK

- 2.1. Areto bat erabiltzeko baimena emateko, honako irizpide hauek nagusituko dira:
 - * Zentruaren programazioa.
 - * Guneen erabilgarritasuna.
 - * Langileriaren egoera.
 - * Ordutegiak.

Hauxe da Kulturateko erreferentzia-ordutegia
Astelehenetik ostiralera: 10:00 – 13:00 / 16:00 – 21:00
Larunbata: 10:00 – 13:00
- 2.2. Ekitaldiak egiteko aretoak lukro asmorik gabeko gizarte, kultura eta kirol izaerako elkarte edo entitateei bakarrik emango zaie dohainik erabiltzeko baimena. Beste edozein erabilpen Arrasateko Udalak aztertu beharko du.
- 2.3. Bilerak egiteko:
Pribatuak diren bileretarako, goian aipaturiko entitate eta elkarteez gain, pertsona fisikoak ere baimendu ahal izango dira, bilerak kultur, gizarte edo kirol izaera baldin badu.
- 2.4. Aretoak dohainik erabiltzeko baimenak bertan egingo diren ekitaldiak irekiak eta dohainik izan beharko direla suposatzen du, Arrasateko Udalak baimendutako salbuespen zirituak izan ezik.
- 2.5. Alokairuak:

2.2, 2.3 edo/eta 2.4 puntuak betetzen ez diren kasuetan alokairua kobratuko da erabilpena egiteagatik, indarrean dauden Ordenantza Fiskaletan azaltzen diren tarifen arabera:
- 2.6. Egingo diren ekitaldiak zentruen ordutegietara egokitu egin beharko dira, eta ezin izango dute zentruen programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta KULTURATEKO eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Ordutegi honetatik kanpo geratzen den guztia, arduradunen iritzien arabera egingo da, langileria eta programazioa kontutan hartuta.
- 2.7. Eskatzaileak, ekitaldian parte hartuko duten pertsona guztiek hurrengoak bete beharko dituzten konpromezua hartzen du:

- * Ohiko erabilpen ordutegia
- * Arrasateko Udalak zehaztuko dituen sarrera eta erabilpenerako arauak

2.8. Eskatzaileak honako ardura hauek hartuko ditu:

- * Aretoa zegoen egoera berean uztearena
- * Erabilpenagatik edo mantenimenduan ardura faltagatik ekitaldian zehar aretoetan gerta daitezkeen kalteena.

2.9. Arrasateko Udalak aretoetan beharrezkoa den edozein aldaketa, eraldaketa edo seinaleztapena aldez aurretik baimendu beharko du. Kasu horretan, beti behin-behineko edo denborazkoa izan beharko da, eta ezin izango dira zoruetan, hormetan edo sabaietan finkapenak behar dituzten elementuak erabili.

2.10. Baimen honek ez du KULTURATEko langileak lanerako erabiliko direnik esan nahi, ez eta bere ekipamendu teknikoa edo materialarena ere. Ekipamendua dela eta behar bereziak badaude, eskaeran azaldu beharko dira eta Arrasateko Udalaren baimena izan beharko dute.”

Aipatu arauak behin behineko izaeraz onartzen dira eta hiru hilabete inguru igaro ondoren izandako esperientziaren inguruko balorazioa egingo da.